

Anorexia eta bulimiari buruzko tertuliak jarri ditu Ongintzak

■ 'Prebentzioa familian' planaren barruan antolatu ditu ■ Gaur 14:45etan da hitzaldi bat: 'Jana eta osasuna' ■ Teresa Gomez mediku nutrizionistak emango du.

TXUS Congilek zuzentzen duen Ongintzako departamenduak anorexia eta bulimiaz eztabaidatzeko bidea jarri du.

Berez, astelehenero izaten du Biterin gurasoekin tertulia, prebentzioaren gainean. Eta bi hitzaldi hauek ere horren barruan antolatu ditu, ACABE anorexia eta bulimia elkartearekin batera.

JAN NAHI EZ EDO BOTA
Anorexia duen pertsonak ez du apenas jaten. Bulimia duenak, berriz, jandako guztia bota egiten du. Bi gaitz hauen sintomak aldatu egiten dira pertsona batzuetatik besteetara.

Zabalduenak dira goserik eza edo dena tragatu beharrean jatea. Beren burua gaizki ikustea (flako egon eta gizen ikusi) da beste sintometako bat. Badira gehiago ere: ezertarako gogorik eza, bakarrik sentitzea, hilekoa galdu, kontzentratu ezina...

NESKA GAZTEAK

Mutil gazteak ere egoten dira anorexia eta bulimiak jota; baina, hamarretik bederatzik neska gazteak izaten omen dira. Orain, ordea, 40 urte inguruko ametara ere iritsi da, "beren alaben gorputz bera izateko grinez".

14 JAKINEKOAK

Hernanin 14 lagunek dute anorexia. Txus Congilen hitzetan, ordea, "benetan dexentez gehiago dira. Jendeak ezkutatu egiten du gaixotasuna eta ezinezkoa da zenbat anorexiko dauden jakitea.

600.000, TRATAMENDUA

Anorexia eta bulimia duten gaixoei badute beste arazo bat: tratamendua oso garestia da. Osakidetzak badu zentru berezi bat horretarako, baina, Bilbon. Gipuzkoan jartzeko eskatu bai, baina, oraindik ez dago. Jendeak, orduan, zerbitzu pribatura jotzen du. □

GIPUZKOAKO TALDEKAKO BOLA TXAPELKETAN

Hernaniarrak seigarren

■ Club Deportiboko taldea bigarren postutik seigarreneraino jeitxi zen atzo, Legazpin.



Club Deportiboko eta Elur Txoriko bolariak, atzo, Legazpin. Ez zuten egunik onena izan.

HERNANIKO taldea irabaztera joan zen Legazpira; baina, ezin! Elur Txori 9 eta Ur Mia 10garren gelditu dira.

FINAL BAT EREÑOTZUN
Taldekako txapelketa eta gero, Gipuzkoako erregularitate txapelketa jokatu da.

Buruz burukoa izango da eta finala Ereñotzuko bolatokian jokatu da. Baina, hori dena, datorren apirilean. □

MENDIRIZ MENDI

Eski ikastaroan izena emateko azken eguna, gaur

■ Fondo eta Alpino egin liteke ■ Datorren asteburuan da ■ Merkatu txikia gaur zabaltzen da.

DAGOENKO 10 inguru a-puntatuak daude Mendiriz Mendik antolatu duen eski ikastaroan. Gaur arratsaldean, zortzietan bilduko dira monitorean eta hor erabakiko dute nolako ikastaroa egin, taldearen maila eta asmoak ikusita.

MERKATUA ZABALIK

Mendiko material azoka martxan da. Ostirala bitartean Mendiriz Mendiko lokalean bertan izango da jendeak ekarritako bigarren eskuko materiala. Ordutegia: 19:30-etatik 21:00etara. □

ABIADURA HAUNDIKO TRENA

Asanblada egingo da asteazkenean, Biterin

■ Antolatzaileek informatu eta iritziak jaso nahi dituzte.

AHTak Hernani inguruan izango duen eragina azaldu nahi dute asanblada antolatu dutenek. Obrak aurten hastekoak

dira; horregatik herri mailan eztabaida piztu nahi da, ikuspegi ezberdinak ezagutzeko. Urtarrilaren 17an 19:30etan. □

Tabernetako Bertsolari Txapelketa, ostiralean

■ Orain arteko sei txapeladunek kantatuko dute ■ Garin tabernan jokatu da 22:30ak aldera.

SAN SEBASTIAN bezpera egun seinatua da Hernaniko bertsolaritzan: 'Tabernetako Bertsolari Txapelketa' antolatzen da urtero-urtero. Tabernetako bertsolariak, ordea, hasieran ziren. Orduan tabernetan bakarrik kantatzen zuten. Orain, haietako batzuk Gipuzkoako txapelketan (Txuria) edo Bertsolatakako saio nagusian (Aritz Zerain) kantatzen dute, Egañaren ondoan.

SEI TXAPELDUNAK

Iurre igeldoarra izan zen lehenengo txapelduna eta Esteban oiartzuarra azkenengoa. Beste lauak: Jon Garmendia, Juan Mari Olano, Gorka Tolosa eta Aritz Zerain. Ez dute hernaniarrek bakarrik parte hartzen, herrian maiz ibiltzen diren ingurukoak ere izaten dira. Iazkoa entzutekoa izan zen; batez ere Aitor Barrenetxeak eta Xapok egin zuten saioa. □

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

zuri esker

www.hkronika.com

Kronika interneten

■ WATERPOLOA (EUSKADIKO LIGA)

Neskek 5-3 irabaziz hasi dute denboraldia

■ Mutilek ere irabazi egin zuten: 15-2; lider jarraitzen dute.

HERNANIKO waterpoloko neskek konpetizioan hasi dira berriz ere 2-3 urtean geldirik egon ondoren. Atzo Riopicoen kontra jokatu eta irabazi egin zuten (deskantsuak ez die gaitzik egin nonbait). Etxeko bost golak Iordi Pastorek sartu zituen.



Hernaniko waterpoloko jokalaria atzoko partidu aurretik: Mainer, Andrea, Itxaso, Eli, Susana, Iugatz, Onintza, Tere, Eneritz, Ainhoa eta Iordi.

LIDER, ETA ERRAZ

Mutiletan Castellae taldekoak jipoi ederra hartuta bueltatu ziren Burgosa, atzo. Hernaniarrek partidurik galdu gabe jarraitzen dute. Golak: Lunbrerasek 6, Baroñok 3; eta Goenaga, Mendoza eta Bereziartuak 2na. □

■ FUTBOLA

Hernanik 2-1 galdu Zubietan

■ Errealak estu hartu zuten txuriberdeek.

PARTIDU ona jokatu zuten, atzo Zubietan Errealak eta Hernanik. Lehen zatian 2-0 galtzen bukatu zuten Imanol Garmendiaren mutilek; bigarrenengoan, ordea, Txutiren golak hernaniarrak piztu zituen eta nahiko lan izan zuten etxekoek aldeari eusten. Arbitroak ere ez zituen bi aldeak berdin zaindu, Errealaren mesedetan. □

■ ERRUGBIA

Bigarren zatian galdu, Hernanik Durangon

ATZO Bizkaian 35-12 galdu zuten hernaniarrek. Deskantsura 9-12 irabazten joan baziren ere, bigarren denboran errepaso ederra eman zieten etxekoek *Giputxei*. Orain, ia derrigorra dute datorren igandean Gernikari irabaztea, mailari eustezkero.

Senior mailako bigarren taldeak 92-0 irabazi zion Gernikari eta jubentilek Durangori 26-7; gazteak lider doaz. □

■ BOLEIBOLA

UPV Hernanik kostata irabazi zuen Iruñean

ALFRED Cerdanen taldea lider doa Euskal Ligan. Atzo hala ere, lesioak medio, uste baino gehiago kosta zitzaizen naparrei irabaztea. Azkenean 1-3 hernaniarren alde. Jokoak: 17-25, 22-25, 25-27, 22-25.


Liga berean, jubentilek ezin izan zuten CV Rekalderen kontra; partidu ona jokatu bazuten ere 3-1 galdu zuten. Jokoak: 25-12, 19-25, 25-17, 25-21. □

■ ESKALADA

Rokodromoari buruzko bilera Tilosetan

■ Gaur elkartuko dira inulabarreko 20:00etan.

HERNANIN rokodromo berria egiten ari dira Etxeberrin, arraunlarien lehengo lokalean. Lokala egokitzeko lan asko egin behar da oraindik, eta horretaz hitz egingo dute gaurko bileran; lan taldeak nola sortu, alegia.



Hernanin bada beti zintzilik dagoenik.

PINTATU

Lurra altxa dute dagoeneko, eta pintura iritsi zain daude pintaketa lanak asteko. Ondoren, pareta egin eta eskutarako harriak jartzea tokatuko da. □

ASTEBURUKO EMAITZAK

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga
U. Navarra 1 -UPV Hernani 3
Euskadiko liga
CV Rekalde 3 - Hernani KE 1

■ ERRUGBIA

1 Liga Nazionala
Durango 35 - Hernani 12
2. Euskal Liga
Hernani 92 - Gernika 0
Jubenilak. Euskal Liga
Durango 7 - Hernani 26
Kadeteak. Euskal Liga

Hernani 78 - Kakarraldo 0

■ ESKUBALOIA

2. Nazionala:
Hernani 30 - Elorrio 8

■ FUTBOLA

3.maila
Real Sociedad 2 -Hernani 1
Emakumezkoen Liga:
Hernani 1 - Antoniano 3
Gorengo maila
Oiartzun 3 - Hernani 1
Gazteen liga nazionala:
Real Sociedad 3 - Hernani 2

Gazteen Ohorezko Liga
Euskalduna 3-Hernani 1

Gazteen 2.Maila
Amaroz 2-Hernani 7
Kadeteen Ohorezko Liga
Hernani 2-Añorga 2

Kadeteen 2.Maila
Hernani 6 - Azkuene 3

Haurren Ohorezko Liga
Sporting 2-Hernani 0

■ MAHAI TENISA

Maila Nazionala:
Hernani 4 - Basauri 3

Gipuzkoako 1 maila:

Hernani 1 - Lasarte 7
Gipuzkoako 2 maila:
Hernani 4 - Luberrri 3

■ PELOTA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Paleta Goma:
Lasa-Martinez 20
Muneta - Ruiz 30
■ WATERPOLOA
2. Euskal Liga (Mutilak)
Hernani 15 - Castellae 2
Euskal Liga (Neskek)
Hernani 5 - Riopico 3

■ HITZ BITAN



Elur Txoriko eta Gure Txokoko bikoteak Hernaniko Txapelketan.

✓ ELUR TXORIKO MUS TXAPELKETA

Asteazken eta ostegunean partidak izango dira. Lehen faseak bukatuta hamalau bikote eta zortzi banakako pasa dira aurrera. **PARTIDAK:**

Asteazkena, urtarrilak 17	Osteguna, urtarrilak 18
Bikoteka	Bikoteka
Niko Garcia-Guardado Tomasena-Larrañaga	M. Burugain-Galarraga Esnal-Iturriza
J. Garcia-Beristain Peñagarikano-Quijera	C. Martinez-T.Sanz Lapazaran-Arozamena
Diego-Antonio P. Lopez-Iturriza	Zubillaga-Martinez Peli-Ramon
Rafa-Xabi Arraras-Pottoko	---
Buruz buru	Buruz buru
I. Imaz / Bilbao	D. Karrera / Otegi
M. Aierdi / M. Burugain	---
Arozamena / Txatxon	---

✓ HERRIKO XAKE TXAPELKETA

Bigarren fasea astebetean bukatuko da. Urtarrilaren 22rako xakeko bigarren kanporaketa faseko partidak jokatuko beharko dute. Guztira, 40 lagun ari dira jokatzen hiru tabernetan (zortziko bost talde) 16 pasako dira final zortzirenetara: talde bakoitzetik bi.

✓ MAHAI TENISA

Basauriri 4-3 irabazi zion, atzo, Maila Nazionalako taldeak. Probintzia mailan, berriz: lehen taldeak 1-7 galdu zuten Lasarte-Oriaren kontra; bigarren taldeak 4-3 irabazi zion Luberriri.

HERIOTZAK

Candida Garmendia Urdangarin

Atzo hil zen 100 urte zituela

Hileta elizkizuna gaur, astelehena, arratsaldeko zazpitan, Floridako Parrokian.

IRRATIAK

(E.M. 99.2): 11:40etan: *Osasuna eta nutrizioa* gaiaren inguruan ariko dira. **12:00etan:** Luis Mari Zaldua, Santa Barbara eta Karobieta inguruei buruz. **12:30etan:** Pasaiaiko hilketen inguruan, Idurre Eskisabelek.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶Taxiak:
943 550093
▶Udaltzaingoa:
943 333288
▶DYA:
943 464622
▶Anbulatorioa:
943 557750

✚ FARMAZIAK

▶Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri, 11
☎ 943 553582
▶Gauz: Tanco
Urnietan, San Juan 36
☎ 943 550942

✚ ASTEARTEA

▶Egunez: Chucla
Kardaberaz 48

☎ 943 551793
▶Gauz: Gorospe
Andoain. R. Arregi 12
☎ 943 592415

✚ ASTEAZKENA

▶Egunez: Aizpuru
Latxunbe Berri 11
☎ 943 553582
▶Gauz: Arzallus
Andoain. Plazaola 17
☎ 943 591514

IRAGARKI MERKEAK

■ Neska euskaldun bat pisu konpartitu baten bila dabil.

☎ 943-33 29 62